


PERTSONEN GARAPENERAKO AHOLKULARITZA

“Zure giza taldearentzat balio-ekarpena”



ENPRESENTZAKO ZERBITZU INTEGRALA





Nor gara?

Gure pasioa gaitasunik eta balioak garatzea eta pertsonen partehartzea erakundeetan sustatzea dugun talde bat gara. Horren ondorioz, gure bezero eta kolaboratzaileek, proposamen-balio hobekoak lortzeko helburuarekin.

Zer egiten dugu?

- Aldaketa prozesuak bideratu, eta kudeaketa- eta antolaketa- era berritzaileetara igarotzea errazten dugu.
- Jarrerak, balioak eta gaitasunik garatzeko metodologiak ematen dizkiegu pertsonei eta erakundeeri.
- Taldeak kudeatu eta dinamizatzeko metodologiak transferitzen ditugu.

1

DEFINIZIO ESTRATEGIKOA / ANTOLAKETA-DISEINUA

Negoio-proiektu bat zehazten laguntzen diegu enpresei. Proiektu horren oinarriak **prozesu efizienteak** dira, baita **enpresen erronkekin bat** datorren antolaketa bat ere. Gainera, benetan eraginkorra den pertsonen kudeaketa-eredu baten oinarriak ezartzen ditugu..

Enpresaren Estrategia Diseinatzea

Nire negozioa kudeatzeko norabidea adieraziko didan ibilbide-orri bat zehaztea

Urteko Kudeaketa-plana martxan jartzea

Funtsezko prozesu bakoitzeko ekintza-plan bat zehaztea eta martxan jartzea, eta helburuak eta adierazleak zehaztea

Pertsonak Kudeatzeko Funtsezko Prozesuak Martxan Jartzen Laguntzea

Enpresan giza baliabideen prozesuak martxan jartzeko laguntza espezializatua garatzea, egitura-kostuak handitu gabe

Kostuak Kudeatzeko Sistemak Diseinatzea eta Ezartzea

Produktu bakoitzaren benetako kostua kalkulatzeko tresnak diseinatzea, aurrekontuak ezagutza eta segurtasun handiagoz egin ahal izateko

Kalitatea Kudeatzeko Sistemak Diseinatzea eta Ezartzea

Kalitatea kudeatzeko sistema bat ezartzea, bezeroen aurrean fidagarritasuna lortzeko

ASIATORR
TALADRADOS PROFUNDOS
DEEP HOLE DRILLING
20 AÑOS 1995 - 2015

Aras
PIEZAS DE PRECISIÓN



serigaur.

MECANIZADOS TAME S.A.L.



zubacor



2

PERTSONEN INTEGRAZIOA NEGOZIO-PROIEKTUAN

Gaur egungo globalizazio-egoeran, ***enpresek lehiakorrak izan behar dute***. Horretarako, ordea, lehiakortasun-kultura eratu beharra dago. Lehiakortasunaren gakoa pertsonen jarrera, balio eta gaitasunean dago. Ingressen metodologia sistemiko bat eskaintzen du, lehiakortasun-kultura parte-hartzearen, lidergo eraginkorraren eta enpresa-proiektu partekatutako baten inguruan sortzen laguntzeko.

Proiektu Partekatua eta Parte-hartzailea sortzea

Pertsona guztiak barne hartzen dituen eta haiek aktiboki parte hartzea sustatzen duen negozio-proiektu bat martxan jartzea.

Zuzendariei eta tarteko agintariei laguntzea


Postuaren erantzukizunak betetzean lidergo eraginkorra garatzea eta efizientzia hobetzea

Kultura- eta Antolaketa-aldaketa

Pertsona eta enpresa gisa hazten laguntzen duten balioak eta enpresa-kultura finkatzea.

Errendimendu handiko taldeak garatzea

Denen talentua ahalik eta ondoen aprobetxatzen laguntzen duten taldeak martxan jartzea



PERTSONEN GAITASUN ETA JARREREN GARAPENA

Pertsonen gaitasunak **enpresen aktiborik garrantzitsuena dira**. Gaitasunetan eta haien garapenean inbertitzea jarduera estrategikorik erabakigarrienetako bat da. Hori dela eta, enpresei lagundu nahi diegu zer-nolako gaitasunak behar dituzten identifikatzen, eta gaitasun berriak egokitzeko, garatzeko edota erakartzeko baliabiderik eraginkorrena zein den zehazten.

Funtsezko Gaitasunak (Core Competence) Identifikatzea

Enpresaren etorkizunerako funtsezkoak diren ezagutza, trebetasun eta jarrerak zein diren jakitea

Prestakuntza-Beharren Diagnostikoak

Enpresako pertsonen behar duten prestakuntza identifikatzea

Jarduera Profesionala Kudeatzea

Enpresako pertsonen euren lanbidean aurrera egiten eta euren jarduera hobetzen laguntzeko ekintzak martxan jartzea

Ikaskuntza Komunitateak

Erronka berriei aurre egiteko, elkarrengandik ikasteko aukera ematen duten dinamikak martxan jartzea

Lanpostuak Zehaztea

Enpresaren antolaketa-egitura diseinatzea eta hobetzea, eta postuen funtzioak eta erantzukizunak zehaztea

Belaunaldi-Txandaketa

Enpresan eskarmenturik handiena duten pertsonen ezagutza eta egiten jakitea babesteko tresnak



PRESTAKUNTZA-ZERBITZU ESPEZIALIZATUA

Mintegiak, Tailerrak eta Neurrirako Prestakuntza

Trebetasun jakin batzuk garatzeko eta/edo enpresako pertsonen arteko gatazkak gainditzeko tresnak, ikuspegi espezializatu eta inpartial batean oinarrituak (**Lidergoa, Komunikazio-Trebetasunak...**)

Jarrerak Garatzea

Pertsona bakoitzak egoera tirabiratsuak gainditzeko eta aldaketara egokitzeko ahalmena hobetzeko tresnak (**Adimen Emozionala, Mindfulness, PNL...**)

Coaching-Zerbitzuak

Hazkunde pertsonaleko eta/edo profesionaleko helburuak lortzeko laguntza pertsonala eta indibidualizatua



4

TALENTUA KONPROMETITU ETA ERAKARRI

Gaur egun, **enpresek lehiakortasuna hobetu eta malgutasuna** (produkzio-baliabideak, arduraldiak, lehiakide berriak...) **handitu beharra daukate**. Hori kontuan izanda, eta enpresei euren aintzatespen-sistemei eta talentua fidelizatzeke sistemei buruz hausnartzen laguntze aldera, lan-ildo espezifikoa bat garatu dugu, enpresen helburu estrategikoak bultzatzeko funtsezko tresna gisa pertsonak kudeatzeko politiken baitan. Halaber, euren gaitasun-premiekin bat datozen pertsonak aurkitzen laguntzen diegu enpresei.

Aitorpen- eta Ordainsari-Azterketak

Egindako ahaleginarekin eta enpresaren emaitzeekin bat datorren ordainsari-sistema zuzenagoa martxan jartzea

Talentua Identifikatzea eta Fidelizatzea

Enpresan benetako balioa sortzen duten pertsonak identifikatzeko eta haien konpromisoa lortzeko tresnak

Gogobetetzea / Lan-Giroa Neurtzeko Inkestak

Enpresaren pertsonen iritzia kuantitatiboki neurtzeko tresnak, hobekuntza-ekintzak martxan jartzeko

Hautapen-Prozesuak

Enpresak behar dituen gaitasunak indartuko dituzten pertsonak aukeratzeko tresnak



BESTE ZERBITZU BATZUK:

Eskualdeko eta / edo Sektoreko Ikerketak

Hainbat arazori buruzko ikerketa sakonak egiten ditugu: informazioa biltzea, informazio hori aztertzea, eta hizkuntza zorrotz eta sintetiko batean azaltzea.

